

Hernanik Kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 24a, asteartea ::: 4.594 zk. ::: www.kronika.net



Argazkia: Maiatzen Andres

ERREMONTA Partidu ederra, Gabonak ospatzeko

Gabonen atarian, sekulako jaialdia antolatu dute gaur, 16:00etatik aurrera, Galarretan. Estelar ederra izango da: Ezkurra-Barrenetxea IV/Urriza-Agirrezabala. ||

EREÑOTZU Autobusa, Bilboko manifestaziora

Manifestazioa izango da urtarilaren 11n Bilbon, presoan alde, eta Ereñotzutik autobusa antolatuko dute. Izena Irrintzi tabernan eman behar da. 15:00etan abiatuko da. ||

GIBELALDE Haurrentzako pelikula, etzi

Haurrentzako pelikula jarriko dute ostegunean Lizeagan. Gibelalde auzo elkarteko egoitzan izango da (Larramendi 11); 17:00etan. ||

PORTU AUZOA 'Gartxot', etzi

Portu auzoan Gabonetako ekintzak antolatu dituzte eta ostegunean Gartxot emango dute 18:00etan, elkarteetan. ||

GAZTE TXOKOA Ginkanarako izen ematea zabalik

Gazte Txokoak eta Kale Hezitzaileek ginkana antolatu dute ostegunean, 10:30etatik aurrera. Parte hartzeko apuntatu egin behar da. ||

ZUMITZA TT Lizentzia berritzeko aukera, gaur

Lizentzia berritu nahi dutenek aukera dute gaur, Zumitzan, 19:30etan. Joaterik ez dutenek ere badute aukera: 90 euro sartu behar dira Kutxabaneko 2095 5041 11 1073726274 kontuan, abenduaren 31 baino lehen. Kontzeptuan izena jarri behar da. ||

Olentzero kalez kale eta baserriz baserri ibiliko da gaur, opariak banatu aurretik

18:00ak aldera iritsiko da Plazara eta kale buelta egin ostean, banaka-banaka hartuko ditu umeak udaletxean. Herria musika eta kantuekin girotzen ere ibiliko dira abesbatzak eta banda.

GAUR iritsiko da ikazkin zaharra Kottonio astoa opariz karga-karga eginda duela. Arratsaldeko 18:00ak aldera iritsiko da Plazara, Ttarla dantza taldeko kideen laguntzarekin. Kaleetan barrena ibiliko da karameluak banatuz eta ondoren, banaka-banaka hartuko ditu umeak udaletxean. Muxu goxoen truke, oparia jasoko dute gerturatzen diren guztiek.

Aurretik, Olentzeroa baserriz baserri eramango dute Bertso Eskolako kideek. 15:30etan abiatuko dira Biteritik eta Zikuñaga eta Osiñaga auzoetako baserri eta sagardotegiak bisitatuko dituzte. Soinujoleen laguntza ere izango dute.

Gabon kantak

Gabon kantak hainbat txokotan entzuteko aukera izango da arratsaldean zehar. 16:30etan hasita, Goiz Eguzki abesbatzako kideak ibiliko dira kalez kale. Parrokiko abesbatzak, berriz, Agustindarren elizan eskainiko du emanaldia 17:00etatik aurrera. 18:00etan, Kantuz abesbatza-



Musika Eskolako ikasleak atzo ibili ziren kaleak girotzen.

ren txanda izango da. Gabon gaueko kale buelta egingo dute Milagrosatik abiatuta. Eta bukatzeko, erronda Plazatik, Musika Bandaren eskutik, 20:00etan.

Bihar, berriz, Eguberri eguneko alborada izango da kalez kale, Musika Eskolako txistularien eskutik. Eta Goiz Eguzkin baile antolatu dute 17:30etatik aurrera.

Zapi naranja soinean

Libre dinamikarekin bat eginenez, zapi naranja janzteko dei egin dute. Salgai izango dira Garin, Goiz Argi eta Tripontzin. ||

EKITALDIAK

GAUR

15:30, Olentzero baserriz baserri: Biteritik autobusa.
16:30, Goiz Eguzki abesbatza, kalez kale.
17:00, Parrokiko abesbatza, Agustinetan.
18:00, Olentzero kaleetan barrena gudarien plazatik abiatuta.
18:30, Kantuz abesbatza, Milagrosatik abiatuta.
20:00, Gabonetako erronda Musika Bandarekin, Plazatik abiatuta.
Bihar, Eguberri eguneko alborada, Musika Eskolako txistulariekin.
Bihar, baile, Goiz Eguzkin.

Saskibaloia teknifikazioak, gazteentzat

Ostegun eta ostiralean izango dira saioak, goizez, Kiroldegian. Larunbatean, berriz, izarren arteko partidua antolatu dute. Senior taldeko kideak eta jokalaririk ohiak neurtuko dira 18:00etan.

HERNANIKO saskibaloia taldeak hainbat ekintza antolatu ditu Gabonetan. Alde batetik, gazteentzako teknifikazioak izango dira ostegun eta ostiralean, goizez.

Adinaren arabera, saio des-

berdinak izango dira: 09:30etatik 11:00etara, 5 eta 6garren LH, mutilak eta neskek eta 1 eta 2garren DBH mutilak; 10:45etatik 12:15etara, 1, 2, 3 eta 4garren DBH, neskek; eta 12:00etatik 13:30etara, 3 eta

4garren DBH mutilak.

Kiroldegian izango dira eta bi egunetan, modu berean banatuko dira saioak.

Jokalaririk ohiak eta egungoak Larunbaterako, berriz, partidua

interesgarria antolatu dute. Izarren arteko partidua izena jarri diote eta aurtengo senior taldeko jokalariek eta jokalaririk ohiak izango dira aurrez aurre. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera izango da Kiroldegian. ||

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

AMAI
ARRANDEGIA

ARRANDEGIA
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

OINDI

taberna
NAGUSIA, 25 HERNANI
943 557 509

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

Urtarrilaren 6an
ZABALIK

Bisita ezazu gure webgune berria
www.erioguardaenea.com

Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel.: (943) 33 02 91

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ●

● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103

✚ **FARMAZIAK** ● **GAUR:** Eguez: **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

✚ **FARMAZIAK** ● **BIHAR:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

PELOTA

Benjamin mailako 27 pelotari, asteburuko topaketan

Unai Etxarri izan da txapelduna. Asteburu honetan, alebinen txanda izango da. Palan, final desberdinak jokatu dira asteburuan.

HERNANIKO esku pelota topaketak antolatu ditu pelotari elkarteak eta asteburuan benjaminak lehiatu ziren. Parte hartze haundia izan zen. 27 pelotari elkartu ziren eta 46 partidu jokatu zituzten. Ikasten ari direna erakutsi zieten bertaratutakoiei.

Unai Etxarri izan zen txapelduna. 16-14 irabazi zion finala Oier Garaiarri. Finalera iristeko, Etxarrik 16-6 irabazi zion Markel Gazteluri eta Oier Garaiarrek 16-6 Jon Jarari. Asteburu honetan, alebinen txanda izango da.

Zugasti eta Rodriguezek irabazi

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Zugasti infantilak irabazi egin zuen eta kontsolazio faseko finala jokatu du. Rodriguez jubenilak ere irabazi egin zuen eta azken fasea jokatzeko sailkatu da. Oiaga-Esnaola seniorrek, berriz, galdu egin zuten finala, 3garren mailan. Cisneros



Aurreneko postuetan geratu ziren 3 pelotariak.

jubenilak ere galdu egin zuen eta azken fasea jokatzetik kanpo geratu da.

Palako finalak, asteburuan

Palan, berriz, finalak jokatu dituzte pelotari hernaniarrek. Ostiralean, Emakumea Pilotariko finalak jokatu dira Tolosan (Beotibar) 17:00etatik aurrera. Aurreneko mailan, Gutierrezek, Mendizabal lagun, Goikoetxea eta Arrieta-aren aurka jokatu du. Bigarren mailan, Lucas eta Jauregi aurrez aurre izango dira. Bikoteak, Arruti eta Redondo.

Larunbatean, Napar pala txapelketako finalak jokatu dira, 11:30etatik aurrera Iruñean (Labrit). Elite mailan, Irazustabarrena eta Arrietak bikote nafarra izango dute aurkari. Lehenengo mailan, Huizi eta Goikoetxea aurrez aurre izango dira.

Lesakan, berriz (17:00), mutilen txanda izango da. Zubimendi eta Ramosek, Usurbilgo bikotea izango dute aurkari finalean.

Bestalde, abenduaren 30ean, ume eta helduentzat pala saioak izango dira. ■

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

A ze zinismoa!!!!!!!

Uste dut badirela pertsona batzuk eta alderdi politiko batzuk, beren gezurrak esanaren esanez, sinisterraino iristen direnak. Eta gainera besteei deitzen digute gezurti, euren moduan pentsatzen ez dugunoi. Horren bi adibide ikusi genituen azken plenoan.

Lehenengo adibidea, Bilduko zinegotzi batek gezurti deitu zionean oposizioko beste zinegotzi bati, hark atez atekoari buruz emandako datu batzuek medio. Esaerak hala dio: "ikusten duzu lastoa besteren begian, eta ez zutabea zeurean" eta horixe da atez atekoaren defendatzaileei gertatzen zaien.

Bizpahiru kontu; badira gehiago, baina inor ez asperitzeagatik... 2009an esan zitzaigun zaborra biltzeko 10 lagun nahikoa izango zirela, gaur 16 ari dira; esan zitzaigun zabor biltzeko 07:30ean bukatuko zela, gaur 13:00ean badira oraindik "gabonetako zuhaixkak" zaborrak zintzi-

lik dituztela; esan zuten atez atekoa martxan jartzea 800.000 € kostako zela, eta 1.500.000 € kosta zen; ukatu egin zuten, nekatu arte, "basura turismorik" ez zela, gaur eurek ere onartu egiten dute. Ez dut jarraituko. Atez atekoa gezur handi baten gainean eraiki dute

Bigarren adibidea, Alkate jaunak honakoa esan izana: "espero zutela zenbait kontu oposizioarekin adostea, baina osoko emendakinak aurkeztu ditugunez, ezin izan zutela ezer egin".

Uste dut horri esaten zaio la zinismoa. EAJ-PNVk osoko emendakina aurkeztu zuen, aurrekontuaren aldaketan partzial batzuetan oinarrituta, beste aukerarik gertatzen ez zitzaielako. Bildurekin akordioaren bat bilatu genezakeela? Horixe, baina esan egin behar ziguten egun horietan BAI, akordioa biltzeko gogoz zirela, lehendabiziko deia izango zen bi urte eta erdian.

Bestalde, eta legegintzaldi erdia baino gehiago pasa ondoren eta "Bilduren politika egiteko modu berria" saldu ondoren, ez badakite osoko emendakinak erretiratu egin daitezkeela aurrekontuak onartzen ari diren edozein unetan, seinale, oinarritzorik ere ez dutela ikasi. Errealitatea da, formula bakarra ezagutzen dutela, RODILLOARENA (gehiengoa daukat eta izorr...), Ezker Aibertzalearen betiko formula. Ikusita Bilduk bi lanegun soilik jarri zituela emendakinak aurkezteko azken eguna eta ogasun batzordea biltzeko egunaren artean, inork sinisten al du oposizioko zinegotziekin akordioaren batera iritsi nahi zela aurrekontuaren gain?

Biktimitz mozarrotzen dira, eta gaiztoak gainerako guztiak gara.

Jada ez dute inor engainatzen.

Andoni Amonarraz Gómez
EAJ-PNVko bozeramailea

❖ EPAIKETA

Beinat Aginagaldi 5 urteko kartzela zigorra ezarri diote

Beinat Aginagalde hernaniarra epaitu zuten ostegunean Parisen, ETAko kide izatea leporatuta. 5 urteko kartzela zigorra ezarri diote. 3 urte eta 10 hilabete daramazki Frantziako Meaux espetxean eta erredentzioak tarteko, Madrildik eskaera egin bezain pronto, Espainiara estraditatu dute. Bertan, hainbat auzi ditu zabalik. ■

❖ ENPLEGU GUNEA

Lana biltzeko proiektu berria, urtarriletik

Lanik gabe daudenei zuzenduta, proiektu berri bat jarriko dute martxan, Udalak, Daitekek eta Lanbidek. Hernaniko Enplegu Gunean izango da. Lana biltzeko prozesu guztia landuko da. Urtarrilaren 13an hasita, otsailaren 24ra arte izango da, astelehenero. Ordutegia: 09:15-11:15. Parte hartzeko, izena eman behar da: marjo-m@hernani.net, 943 33 68 02 (Marjo) edo jaionea@daiteke.com, 943 57 54 24 (Jaione). ■

◆ ATLETISMOA - SAN SILVESTRE

Izen ematea zabalik dago

Urtea korrika agurtzeko aukera izango da aurten Hernanin. Izan ere, San Silvestre lasterketa antolatu dute, Wukroren alde. CD Hernanik, Hernani Wukrorekin GKEak, Etiopia-Utopia Fundazioak eta Euskaltrailek antolatu dute. 18:00etatik aurrera, maila desberdinetako lasterketak izango dira. Helduen lasterketa 4 kilometrokoa izango da, Plazatik abiatuta. Aurrez izena emanez gero, 6 euro ordaindu behar dira; egunean, 10 euro. Aurrez izena emateko: www.kirolprobak.com, Pelotadenda eta Ibai Mendin. ■

◆ TXANTXANGORRI - ARGAZKI LEHIAKETA

Argazkiak entregatzeko, astebeteko epea

Txantxangorrik argazki lehiaketa antolatu du eta argazkiak entregatzeko azken eguna abenduaren 31 da. Gaia, honakoa: Ehiza, arrantza eta tiroa. Nahi diren argazkiak aurkeztu daitezke. Hiru maila izango dira: 14 urtera artekoa, 14 urtetik gorakoa eta argazki herrikoia. Bidaltzeko: info@txantxangorri.com. ■

❖ ASTIGARRAGA

Joko aretoa zabalik, Gabonetan

Astigarragako kultur etxeko joko aretoa zabalik egongo da Gabonetan, 9-12 urteko gaztetxoentzat. Egunak: abenduak 26, 27, 30, 31 eta urtarrilak 2. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 16:00-18:30. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

	<p>Joaquin Iceta Pagola 1963ko urriaren 11n hil zen</p>	
	<p>Mayi Pikabea Ducaz 2011ko urtarrilaren 1ean hil zen</p>	
	<p>Joxe Igariz Etxeberria 2004ko abenduaren 25ean hil zen</p>	
	<p><i>Aspaldi joan zineten, baino betirako zaudete gure bihotzean, maite zaituztegu</i></p>	
	<p>ZUEN SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK ZURE EMAZTE, SEME-ALABAK ETA BILOBAK</p>	
	<p>Hernanin, 2013ko abenduaren 24an</p>	

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)